

## BALOREZKO PROPOSAMENA

Gure helburua goxoki industrialak alde batera utzi eta jendearen osasuna bermatuz goxoki ekologikoak sortzea da, goxoki industrialen zapore gozoa galdu gabe. Honez gain, garrantzitsua ikusten dugu jendea, gazteak nagusiki, euren osasunean kontzientziaztea.



Gainera, kirolaren munduan ere zentratuko gara. Izan ere, kirolarientzat zuzenduriko goxokiak egingo ditugu. Goxoki hauek, bitaminaz eta gatz mineralez horniturik egongo dira, atletek kirola eginda gero eta egin aurretik indarrak har ditzaten, edari isotonikoak edota barrita energetiko zein pilula industrialak hartu beharrean. Gure goxoki hauek, errendimendua hobetzeko beharrezko guztia izango dute, betiere kalitate hobereana bermatuz. Jarraian, bezeroek gure produktuak erosteko izango dituzten arrazoiak emango ditugu:



Gure balioa kuantitatiboa zein kualitatiboa izango da. Alde batetik, kuantitatiboa dela esango dugu arrazoizko prezioa izaten saiatuko garelako. Hala ere, gure produktuek kalitatezkoa, 0 km-koak diren osagai ekologikoak dituztenez, prezioa igo daiteke.

Bestetik, kualitatiboa izango da, goxokiak osasungarriak izateaz gain, diseinuari ere garrantzi handia emango diogulako, hau da, gure produktuak itxura ona izan dezan bermatuko dugu. Zapore ona izateaz gain begientzako erakargarria izango dira goxoki hauek.

Produktu hauek jendeak osasunean dituen arazoak konpontzeko edo ez okertzeko balio dezakete, osasungarriak direlako. Produktuak ekologikoak izango dira, izan ere, lehengaiak, Zero kilometrokoak izango baitira eta produktu kimikoak erabiltzen ez dituzten hornitzaileei erosiko dizkiegu.



Azkenik, goxoki ekologiko hauen eskuragarritasuna erraza izango da. Izan ere, denda fisiko nahiz gure webgunean salgai egongo dira.

